

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

5627

EBAZPENA, 2016ko abenduaren 15ekoa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinen bidez Donostiako udalerrian turismo ugariko eremuak izendatu baitira, merkataritzako ordutegien ondorioetarako.

Lehenengoa.– Merkataritza-ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legeak 5. artikuluko ("Ordutegi araudi berezia duten establezimenduak") 1. zenbakian xedatzen duenez, Espainiako lurralde osoan askatasun osoa izango dute zabalik egongo diren orduak eta egunak erabakitzeko, gehienbat, gozotegi eta okindegiek, plater prestatu, prentsa, erregai eta karburanteen saltokiek, loradendek eta komenientziakoak deiturikoen, baita mugetan, geltokietan, lurreko, itsasoko eta aireko garraibideetan eta turismo ugariko eremuetan daudenek ere.

Artikulu horren beraren 4. zenbakiak, berriz, honako hau zehazten du; aurreko paragrafoan ezarrita dagoena betetzeko, autonomia erkidegoek, dagozkien udalek proposatuta, euren lurralde-eremuan turismo ugariko guneak zeintzuk diren zehaztuko dute. Turismo ugariko eremutat hartuko dira honako inguruabar hauetakoren bat duten eremuak (izan udalerrri osoa, izan haren zati bat):

a) Nahikoa kontzentrazio izatea, kuantitatiboki edo kualitatiboki, ostatu eta establezimendu turistikoek dagokienez edo bigarren etxebizitzan kopuruari dagokionez (ohiko etxebizitzan kopuruarekiko).

b) Izadiaren ondare deklaratu izatea edo ondare historiko artistikoan sartuta dagoen eta interes kulturala duen ondasun higiezin bat edukitzea.

c) Muga ondoko zonetako eragin-eremuak mugatzea edo eratzea.

d) Nazio edo nazioarteko mailako kirol- edo kultura-ekitaldi handiak egitea.

e) Itsas-bidaia turistikoekin lan egiten duten eta bisitari-kopuru nabarmena daukaten portu-eremuetatik gertu egotea.

f) Batik bat erosketa-turismoagatik erakargarri diren eremuak izatea.

g) Turismo ugariko eremu izatea justifikatzen duten inguruabar bereziak daudenean.

Eta 5. zenbakian honako hau ezartzen da:

«Nolanahi ere, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, baldin eta aurreko urtean 600.000 ostatu-gau baino gehiago erregistratu badituzte, edo aurreko urtean 400.000 bidaiari baino gehiago izan dituzten itsas-bidaia turistikoekin lan egiten duten portuak badituzte, eremu bat, behintzat, turismo handiko eremutat joko da, aurreko paragrafoan aurreikusitako irizpideak aplikatuz. Datu estatistiko horiek lortzeko, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Estatuko Portuen Erakundearen argitalpenak erabiliko dira.»

Bigarrena.– Abenduaren 9an, Donostiako Udalak proposamena aurkeztu du Zurriolako Pasealeku eta Etorbideko eta Alde Zaharreko – Bretxa merkataritza-gunea bazter utzita– eremuak turismo ugariko eremutat jotzeko, Merkataritza-ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 5. artikuluko 4. eta 5. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritz.

2016ko abenduaren 30a, ostirala

Hirugarrena.– Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 13. artikulua bidez esleitutako eskumenak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostia udalerriko honako eremu hauek turismo ugari eremutzat jotzea: Zurriolako Pasealekua eta Etorbidea eta Alde Zaharra, Bretxa merkataritza-gunea bazter utzita.

Bigarrena.– Adierazpen hau indarrean egongo da 2017an.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdia egiteko ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 15a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
ISABEL MUELA LÓPEZ.